



**EGILEA** Itziar de la Encina-Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** Getxoko Udala-Euskara Zerbitzua

**ILUSTRAZIOAK:** Kepa de Orbe

**ARGAZKIAK:** Ana Gonzalez Herrero- Artefacto estudio

**San Nikolas liburutegia**





# TOPONIMIA

Toponimia, grekotik datorren terminoa da eta bi hitz hauetatik dator: "*topos*", lekua eta "*nimia*", izena. Beraz, leku-izenek "toponimoak" esaten zaizkie. Baserri, auzo, erreka, mendi eta abarren izenak dira toponimoak.

Zer gertatuko litzateke Getxon lekuek izenik ez balute? (Kaleak, auzoak, hondartzak...) Imajinatu dezakezunez leku-izenak beharrezkoak dira gure eguneroko bizimoduan erreferentziak edukitzeko eta lekuen kokapen zehatzak jakiteko.



Leku-izenak mapetan, seinaleetan, liburuetan... idatzita ikus ditzakegu. Ahoz ere erabiltzen ditugu. Ahozko eta idatzizkoaren arteko ezberdintasuna argi ikusten da, adibidez, "*Jauregi*" etxearen kasuan; inguruko euskaldunek *yeuri* edo *yauregi* esaten diote.

Leku-izenak denborarekin aldatu egiten dira. Lehen, Getxon portu bakarra zegoenean, Portu Zaharrari Algorta deitzen zioten.

Nondik datoz leku-izenak?

Sarritan leku eta batez ere etxeen izenak bertan bizi diren pertsonen izenak, abizenak edo ezizenak izaten dira. Getxoren kasuan etxearen izaera (Torretxe), kokapena (Goikoetxea) eta deskripzioak (Etxeandia) adierazten dituzten etxe izenak aurkitu ditzakegu.

Beste toponimo batzuk natur inguruari buruzko informazioa ematen digute: Aretxeta, Elorriaga, Saratsaga, Gaztañaga.

Hemen daukazu adibide garbi bat. Begiratu beheko irudiak:



Artea



Arteagaurre

### **ARIKETAK:**

1. Zer esan nahi du TOPONIMIA hitzak?
2. Zein kale eta auzotan dago zure eskola? Ez badakizu galdetu irakasleari.
3. Non bizi zara? Idatzi zure helbidea.
4. Atera argazki bat zure kalearen izenari eta eraman klasera.
5. Zure taldekoen kale-izen guztiak batu eta kartoi mehe batean jarri. Kaleren baten esanahia asmatuko zenuke? Eskatu laguntza irakasleari.
6. Hitz hauetatik zeinek ematen digu natur inguruneari buruzko informazioa? Biribildu.

Aretxeta	Tellaetxe	Makaleta	Saratsaga
Portu Zaharra		Goñibarria	Salsidu
Lexarreta		Uria	Murua